

75
ANS
URTE

MAURICE
RAVEL

Martxoaren 7a, ostirala Ravel musikan! hiri- eta arte-ibilbidea	5. or.
Apirilaren 4a, ostirala Iparraldeko orkestraren Ravel-en inguruan kontzertua	6. or.
Maiatzaren 24a, larunbata <i>L'enfant des sortilèges (Sorginkerien haurra)</i> Gianmarco Totoren ikusgarria, Les Planchettes konpainiaren haurrek emanik	7. or.
Maiatzaren 31, larunbata Estudiantinak Ravel topatzen duelarik Ziburuko Estudiantinaren kontzertua	8. or.
Ekainaren 9a, astelehena Jean-Baptiste Sorin-en <i>Ravel bere garain</i> , organo errezitala	9. or.
Ekainaren 28tik agorrilaren 31ra Ravel-en urratsetan hiri-erakusketa	9. or.
Ekainaren 20tik agorrilaren 31ra Ravel <i>Bolero</i> erakusketa	10. or.
Ekainaren 26a, osteguna Boleroaren sortzea hitzaldia Pierre Korzilliusen ahotik, Ravel <i>Bolero</i> erakusketaren arduraduna	11. or.
Agorrilaren 19tik irailaren 7ra Ravel Festibala	12. or.
Irailaren 21a, igandea 24 konpainiaren Diabolo ikusgarria	13. or.
Urriaren 12a, igandea Jean-François Zygel-en Maurice Ravel omentzeko kontzertua	14. or.
Azaroan 2a, igandea Ravel, ametsen eta noten artean kontzertua	15. or.
Maurice Ravel-en sortzearen 150. urteburuaren ospakizunez gain... Denekin, hala ttipi nola handi!	16. or.
Urte osoan zehar, badiaren inguruan!	18. or.

EDITORIALA

2025ean, Maurice Ravel-en 150. urteburua kari, artistaren sorterriak diren Ziburu eta Donibane Lohizuneko hiriek eta badiako sindikatuak musikagile ospetsuari omenaldi kartsu bat eskaini nahi diote, Les Récollets - Errekoletok AOIZaren bitartez.

Kultura-egitarau ausart baten bitartez, Maurice Ravel eta bere gaztaroa eta goiargia markatu dituzten euskal lurren arteko lotura sakona azpimarratu nahi dugu. Urte osoan zehar, musika, erakusketak, antzerkia, hitzaldiak edo zirkuko arteak nahasiko dira esperientzia aberatsa eta anitza eskaintzeko xedez.

Urteburu hori funtsezko lan bat eramateko aukera ere izanen da, lurraldeko ikastetxe eta mediateketan antolatutako bitartekaritza ekintzen bitartez.

Sortu eta 150 urte geroago, Maurice Ravel-ek bi hiriak batzen ditu egitarau bakar baten inguruan, bere denboraz kanpoko obra eta ondarea (berriz) ezagutzera gomitatuz.

Orduan, jakin-mina piztu eta zatozte gurekin arte-, kultura- eta oroz gainetik musika-urte berri bat bizitzera!

Jean-François Irigoyen, Donibane Lohizuneko auzapeza eta Donibane Lohizune eta Ziburuko Badiako Sindikatuaren Lehendakaria

Eneko Aldana-Douat, Ziburuko auzapeza eta Donibane Lohizune eta Ziburuko Badiako Sindikatuaren Lehendakariordea

Pello Etcheverry, Donibane Lohizune eta Ziburuko Badiako Sindikatuaren Lehendakariordea



**MARTXOAREN 7A,
OSTIRALA,
18:00-20:00**

 **Ziburu**

 **Urririk**

**Erreserbatuz turismo
bulegoen aldean (leku
kopurua mugatua)**

Ravel musikan! hiri- eta arte-ibilbidea ✓

1875eko martxoaren 7an, nazioarte mailako ospea ezagutu zuen Maurice Ravel sortu zen Ziburun. Bere sortzearen 150. urteburua kari, gure gidari-hizlariak segi itzazue Ziburuko hiri barnean gandi. Ad Libitum taldeak musikaz puntuztatzen duen ibilbidea musikagile handi hori ezagutzeko edo berriz ezagutzeko egiazko gomita bat da.

Kobrezko instrumentuz osatutako Donibane Haizeak orkestra amaturraren kontzertu ttipi bat izanen da ibilaldiaren ondotik.

Hiri-ibilbidea




Ravel-en inguruan /

IPARRALDEKO ORKESTRA

APIRILAREN 4A, OSTIRALA
20:00

 **Les Récollets - Errekoletok**
AOIZko kapera

 Prezio betea 16 €
Aitzin-salmenta 12 €
Prezio apaldua 10 €
Urririk 22 urtez pekoentzat


Erreserba eginez

Ravel-en *Introduction* et *Allegro* obra harpalari baten bitzta puntuztatzen dituen obra enblematikoetariko bat da. Obra hori sokazko kuartettoa, flauta, klarinetea eta harpa nahasten dituen ohiz kanpoko musika talde batentzat idatzia izan zen.

Harpari eta Maurice Ravel musikagileari eskainitako egitaraua osatzeko, Orkestrak *Ma Mère l'Oye* (Nire ama antzara) berriz ezagutzera gomitutzen zaituzte, hastapenean haurrendako libertimendu gisa sortua izan zen obra, Charles Perrault idazlearen testuek lagundurik.

ENTSEGU PUBLIKOA

APIRILAREN 1A,
ASTEARTEA
14:30

 **Les Récollets - Errekoletok**
AOIZko kapera

 Urririk

Erreserba eginez


Kontzertua


Ikusgarria

L'enfant des sortilèges (sorginkerien haurra) /

GIANMARCO TOTO, LES PLANCHETTES ANTZERKI KONPAINIAREN HAUREK EMANIK

MAIATZAREN 24A,
LARUNBATA
18:00

 **Tanka aretoa**
Donibane Lohizune

 Bakoitzak nahi duena

Maurice Ravel-en *L'Enfant et les sortilèges* (Umea eta aztikeriak) obran libreki inspiratutako komedia fantastiko horretan, mutiko gazte eta kexati batek bere ama igurikor eta amultsuaren aginpideari buru egiten dio etengabe. Enegarren haserrealdit baten ondotik, bere amak pazientzia galtzen du eta, kolpez, dena aldatzen da. Haurraren logela mundu miresgarri bihurtzen da, non jostailuak eta gauzakiak bizidun bilakutzen baitiren haurrari buru egiteko eta entzun behar duen egia adierazteko.

Liskar zapart egingarri eta zirrara uneen artean, antzezanak erantzuletasuna, errespetua eta askatasuna eta arauen arteko orekaren bilketaren gaiak ikertzen ditu.

Denendako ikusgarri pindartsua, amets egitera, gogoetatzera eta irri egitera akuilatzen gaituena.



© Tania Cardineau

© Gianmarco Toto




Kontzertua

Estudiantinak Ravel topatzen duelarik /

ZIBURUKO ESTUDIANTINA

**MAIATZAREN 31,
LARUNBATA**
20:30

 **San Bixintxo eliza,
Ziburu**

 Bakoitzak nahi duena

Aurten, Ziburuko Estudiantinak, gitarrez eta mandolinaz osatutako ehun urteko orkestra, Maurice Ravel Ziburuko maisu handia eta, oro har, frantses musika omentzeko kontzertu bat proposatuko du.

Ravel, baita Fauré, Bizet, Debussy, Massenet, Saint Saëns eta beste hainbeste artistek ere osatuko dute egitaraua.

Organo errezitala

**EKAINAREN 9A,
ASTELEHENA**
16:00

 **San Joan Bataiatzailea eliza
Donibane Lohizune**

 Tarifak laster

Erreserba eginez


Ravel bere garaian /

JEAN-BAPTISTE ROBIN

Jean-Baptiste Robin Versailles jauregiko Errege-Kaperaren organo joileak musikagile ospetsuaren obra bere garaian berriz kokatzen duen errezitlat bat proposatzen digu. Horrela, Ravel-en musika-potreta bat agertzen da, haren zale-tasunak, entzuten zuen musika, baita inspiratu zuena ere marraztuz.

Ravel-en urratsetan /

**EKAINAREN 28TIK
AGORRILAREN 31RA**

 **Ziburu eta
Donibane Lohizune**

Eskualdeko musikagile bazterrezina eta nazioarte mailan famatua den Maurice Ravel-ek anitz maite zuen sorterrian zituen bere obretarako goiargi iturriak aurkitzen. Zoazte bere gibeletik bere egonaldiak markatu dituzten gune eta monumentu enblematikoak ezagutzera.

Ziburu eta Donibane Lohizuneko karrketan banatutako hamar geldialdiz osatutako hiri-ibilbide bat dago zuen zain.

Hiri-erakusketa



Ravel Bolero /

PARISKO FILARMONIKOA

**EKAINAREN 20TIK
AGORRILAREN 31RA**

 **Les Récollets-Errekoletok
AOIZ**

 AOIZaren prezioak

Ravel-en lanaren eta nortasunaren ezaugarri kasik guziak biltzen ditu Boleroak.

Parisko filarmonikoarekin elkarlanean, lan horren ikerketa arraiari eskainitako *Ravel Bolero* deitutako erakusketa ibiltaria aurkeztua izanen da Les Récollets - Errekoletok AOIZaren kaperan eta bistalekuan.


Pariseko orkestrak emandako ikus-entzunezko esperientzia paregabe batean murgilduko zarete, baita denboraz kanpoko obra horren sortzea irudikatzen duten dokumentu eta artxibo batzuen aurkezpenean ere.

Boleroaren sortzea /

PIERRE KORZILIUS, RAVEL BOLERO ERAKUSKETAREN ARDURADUNA

**EKAINAREN 26A,
OSTEGUNA
18:30**

 **Les Récollets - Errekoletok
AOIZko kaper**

 Sartzea uririk

Boleroaren sortzea Ravel-en bizitzaren garai biziki trinko batean kokatzen da. Ameriketako itzuli arrakastatsuen ondotik Ipar Euskal Herrira sartu eta, Ida Rubinstein-en eskaera ohoratzeko zailtasunaz ohartu zen.

Hitzaldiak *Boleroaren* sortzearen historia xeheki azalduko du, hala Ravel jenio musikariaren alderdiak nola bere Euskal Herriarekiko eta era espainolekiko atxikimendu sakona ere salatuz.

Erakusketa



Hitzaldia





Festibala

**AGORRILAREN 19TIK
IRAILAREN 7RA**

Egitaraua, egunak, lekuak
eta prezioak



festivalravel.fr



Erreserba eginez

Ravel Festibala

Maurice Ravel-en sortzearen 150. urteburua kari, Festibalak ohiz kanpoko edizio bat eskainiko digu: ekitaldi bazterrezinak, orkestra eta artista handiak, egun bereziak, usaiaz kanpoko lekuak, egitarau ausartak, sorkuntzak, klase magistralak, Akademiako talentu gazteen kontzertuak...

Ipar Euskal Herriko eremu paregabean, Bertrand Chamayou arte-zuzendariak eta Festibaleko eta Akademiako lantaldeak hiru asteko ospakizunera gomitzen zaituztete, Ravel eta bere mundu nasaia ren inguruan.



Ikusgarria

Diabolo

24 KONPAINIA

**IRAILAREN 21A, IGANDEA
19:30**



**Les Récollets - Errekoletok
AOIZko kapera**



Urririk

Erreserba eginez

2024ko azaroan, 24 konpainia Ravel-en sorterrian jarri zen bere obra berria lantzeko: Diabolo. Urteburu horretan Ziburura itzultzen da Frantzian ikusgarri berri hori emanen duen lehen saiorako!

“Gure diabolo idatzi, Ravel-ek bere *Boleroa* idatzi zuen bezala: barne-barnekotik hedadura handikora”

Nehoz ikusi gabeko antzezpenearekin, zortzi diabolo artista handik anitz laket duten gauzakiarekin, hots diabolorekin duten harremana salatzen diote publikoari. Pixkanaka, Boleroak durundatzen du agertokian, talde-koreografia bikain baterako.

Maurice Ravel omentzeko kontzertua /

JEAN-FRANÇOIS ZYGEL

URRIAREN 12A, IGANDEA



Tanka aretoa
Donibane Lohizune



20 € eta 38 € artean

Erreserba eginez

Piano joile, musikagile, inprobisatzaile, dohain handiko irakasle eta pedagogo sutsua den Jean-François Zygel-ek ez du parekorik musika-historiaren goi mailako obrak xeheki azaltzeko eta, batez ere, denei maitarazteko, nehoiz harrapatu edo ulertu ez genuena entzunarazten digularik.

Bach eta Beethoven artisten inguruko fantasien ondotik, Jean-François Zygel beste monumentu bati lotzen zaio: Maurice Ravel.

Musikagile handi horri eskainitako omenaldi-kontzertua, ekitaldi paregabea, ustekabekoa eta harrigarria.

Kontzertua



AZAROAREN 2A, IGANDEA
17:00



Tanka aretoa
Donibane Lohizune



Sartzea urririk

Erreserba eginez

Ravel, ametsen eta noten artean /

Maurice Ravel-en 150. urteburua kari, Donibaneko Haitzeak, Estudiantina Donibandarrak, Les vies dansent, Peña Almonte eta Scaramuccia taldeak biltzen dira sorkuntza berezi baten inguruan.

Ezin hobeki antolatutako taulen bidez, publikoa musikagilearen mundu liluragarrian murgilduko duen ikusgarri paregabea.

Agertokian, 60 musikaririk, aldizka ala denak batera, dantzariak eta antzezleak lagunduko dituzte. Sortegunetik Bolero mitikora, taula bakoitzak musikagile ospetsua hobeki ezagutzeko bidea eskaintzen du.

Ametsaren eta errealitatearen arteko bidaia zirraragarria eta dirdiratsua.

Ikusgarria



©Denis Rouvre

Urte osoan zehar, arte- eta bitartekaritza-ibilbideak proposatuak izanen dira, publiko guzietan Maurice Ravel (berriz) ezagutzeko aukera emateko: sorkuntza egonaldiak, ikastetxeendako arte-ibilbideak edota belaunaldien arteko topaketak.

Iparraldeko Orkestraren ohiz kanpoko egonaldia

Orkestra Ziburun jarriko da apirilaren 1etik 4ra zenbait entsegu egunetarako eta Donibane Lohizune eta Ziburuko badiako publikoen aldeko bitartekaritza une batzuetarako.

Ikasturte osoan zehar, Ziburun, San Mixel ikastetxeko eta Kaskarotenea ikastolako lehen mailako 4. eta 5. urtekoek musikagilearen obra eta historiari buruzko ibilbide oso bat segituko dute. Ildo horretatik, ohiz kanpoko saio pedagogiko batean parte hartuko dute Orkestrako musikari batzuekin.

Trukaketa eta entsegu publikoak ere antolatuko izanen dira Donibane Lohizune eta Ziburuko haurtzaindegietako, ama eskoletako eta lehen mailako ikastetxeetako haurrekin.

Ziburuko Iduski Ederra elkarteko adinekoek ere entsegu publiko bat ikusiko dute apirilaren 1ean, asteartea.

Kultura- eta arte-heziketa proiektua *L'enfant et les sortilèges (Umea eta aztikeriak)*

Irailetik goiti, Ravel Festibala & Akademiak Ziburuko bi ikasgelei “L’Enfant et les sortilèges” obraren inguruko ezohiko ibilbidea proposatzen die.

Irailaren 3an, asteartea, oporretatik itzuli berri ziren Marinela ikastetxeko 195 ikasleek kontzertu paregabe bat ikusi ahal izan zuten ikastetxeko jostalekuan: Ravel Festibaleko zuzendaria eta piano joilea den Bertrand Chamayou, Apolline Rai-Westphal sopranoa, Aimery Lefèvre baritonoa eta KiLiKA konpainiaren txotxongilo erraldoia hor zeuden eta hiriko pertsonarik ospetsuena ezagutarazi die.

Azarotik ekainera, musika eta antzezpenaren arloko goi mailako esku hartzaileek lehen mailako 4. eta 5. urtekoak “L’Enfant et les sortilèges” opera berenganatzen lagunduko dituzte.

Halaber, Bordeleko opera bisitatzeko aukera izanen dute haurrek, baita “Ma Mère l’oye” (Nire ama antzara) opera ikusteko ere, datorren apirilaren 10ean.

Beren lanaren emaitza kontzertu baten bidez erakutsiko dute ekainaren 6an, ostirala, Guy Poulou erabilera anitzeko gelan, musikari eta kantari profesionalen ondoan.



150 ANS URTE MAURICE RAVEL

HORREZ GAIN... /

Mediateketan

2025. urteko hari nagusia izanik, Maurice Ravel eta bere obra izanen dira ohoretan Larrungo mediateken sareko egitura desberdinetan, gaiari eskainitako zenbait erakusmahaiekin: diskoak, liburuak, DVDak...



Jakintza elkartearen galtzarrean

Maurice Ravel-en 150. urteburua kari, Euskal Herriko historiari buruzko ikerketak daramatzen eta ondarearen zaintzan parte hartzen duen kultura- eta historia-elkarteak argitaraldi berezi bat plazaratuko du Maurice Ravel-en euskal jatorriari buruz: Maurice Ravel-en euskal jatorriak.

Donibane Lohizuneko herriko musika-eskolan

Herriko musika-eskolak Maurice Ravel bereganatuko du, musikazaleei zuzendutako "Petite Partoche" kultura- eta pedagogia-aldizkariaren argitaraldi berezi bat eskainiz musikagileari!

Dukontenea Etxeko Micro-Folie museoa

Zuen museo digitalaren ateak zabaldu eta zatozte lantaldeak Maurice Ravel-en inguruan apailatutako egitaraua ezagutzera. Musikagile famatua (berri) ezagutzeko aukera, ikuspegi berri batetik!

ASTEAZKEN ETA LARUNBATETAN 14:00-17:00

📍 Dukontenea Etxeko behean, André Ithurralde etorbidea, 12

📍 Sartzea urrik



Les Récollets - Errekoletok Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio Zentroan

Maurice Ravel-en 150. urteburua kari, Arte eta Historia Hiriki AOIZra gomitatzen zaituzte, hitzaldi, gazteendako tailer, aire zabaleko zinemaldi eta bisita gidatu batzuetarako, urte osoan zehar.

BISITA GIDATUAK

Les Récollets - Errekoletok AOIZko Ravel Bolero erakusketaren harira, gure hizlari-gidariak hiriko erakusketak azalduko dizkizute eta gaikako bisitak proposatuko hirian gandi.

📍 Erreserba eginez

MAURICE RAVEL-I BURUZKO MUSIKA-HITZALDIA, JEAN-FRANÇOIS HEISSEREN AHOTIK

Ravel Bolero erakusketak bukatzeko, Les Récollets - Errekoletok AOIZak Jean-François Heisser piano joile eta orkestraburu ospetsua errezibituko du, Ravel-i buruzko musika-hitzaldi baterako.

AGORRILAREN 27A, ASTEAZKENA - 18:30

📍 Ziburu, Les Récollets - Errekoletok AOIZ

📍 Sartzea urrik

BOLERO AIRE ZABALEKO ZINEMALDIA

Le Select zinemarekin partaidetzan

Anne Fontaine-k egindako filma

EMANALDI BAT UZTAILEAN ETA BESTE BAT AGORRILEAN - ILUNTZEAN

📍 Ziburu, Les Récollets - Errekoletok AOIZ - hegoaldeko hegalean

📍 Sartzea urrik - Erreserba eginez

«ZURE BOLEROA ASMATZEKO!» COLLAGE TAILERRA

Gazteendako tailerra

Les Récollets - Errekoletok AOIZko aldi bateko erakusketak bisitatu ondok, Maurice Ravel musikagile ospetsuaren munduan murgil zaitezte eta bere obraren historia ezagutu. Begiak hetsi, Boleroa entzuteko saio sentikorrean murgildu eta, ondok, zuen obraren interpretazio propioa adierazi afixa bat sortuz, collage teknikaren bitartez, bi orduko tailer baten denboran.

UDAKO OPORRETAN

📍 Ziburu, Les Récollets - Errekoletok AOIZ

📍 Prezioak: 5€ - izena emanaz

IZENA EMATEKO:

www.mairie-ciboure.fr/150-ans-ravel



[www.saintjeandeluz.fr/
150-ans-de-la-naissance-de-ravel
-rendez-vous-de-mars-a-novembre/](http://www.saintjeandeluz.fr/150-ans-de-la-naissance-de-ravel-rendez-vous-de-mars-a-novembre/)



Argitalpen zuzendariak: Jean-François Irigoyen, Donibane Lohizuneko auzapeza eta Eneko Aldana-Douat, Ziburuko auzapeza Sorkuntza, orrialdeen prestatzea: Donibane kopi
Idazketa: Bi hirietako komunikazio eta kultura zerbitzuak - Itzulpena: Argitxu Errotabehere
Argazkiak: Tania Cardineau, Gianmarco Toto, Maider Lalanne, Donibane Lohizune eta Ziburuko AHH, BNF, KOMCEBO, DR - 24 konpainia, Denis Rouvre.
Inprimaketa: Donibane kopi - Liburuxka hau birziklatutako paperean inprimatua izan da
Licence 1: PLATESV-D-2022-006462 -
Licence 2: PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3: PLATESV-D-2022-006463